## 26. ORDENANTZA

# Ordenantza fiskala, Udaleko Gizarte Ongizate Alorrak hirugarren adinekoendako antolatzen dituen ikastaro edo jarduera soziokulturaletarako sarrera, izen emate edo matrikulagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituena

**Oinarria**

**1. artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

## KONTZEPTUA

**2. artikulua.** Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Gizarte Ongizatearen Alorrak antolaturiko ikastaro eta jarduera sozio-kulturaletan parte parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo gisako bertze edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko bertze ordenantzetan sartuta ez daudenean.

## KUDEAKETA ETA DIRU-BILKETA ARAUAK

**3. artikulua.** Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen ematea edo matrikula egitean.

**4. artikulua.** Prezio publikoak ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

**5. artikulua.** Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

## TARIFAK

**6. artikulua.** Arau honetan azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasuan-kasuan ezartzen direnak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, Balio Erantsiaren gaineko zergaren kuota ere eramanen du.

# 2011KO TARIFEN ERANSKINA

| | **ERROLDATUAK** | **ERROLDATU GABEAK** |
|---|---|---|
| Ikastaro eta tailerrak (euro/ikastaroa) | 17,50 | 30,00 |